**Unai Rekondo Pérez, Maider Lainez Lazcoz Alkatea duen, Andoaingo Udaleko (Gipuzkoa) Idazkaria naizenez.**

**ZIURTATZEN DUT, A.F.A.J. erregelamenduko 206. artikuluan aurrikusitako salbuespena aintzakotzat harturik, Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatetzak eskuordeturik, joan den 2021eko urriaren 01an egin zuen ohiko batzarraldian, eta beste zenbaiten artean, ondoko erabakia hartu zuela:**

**Unai Rekondo Pérez, Secretario del Ayuntamiento de Andoain (Gipuzkoa), del que es Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz.**

**CERTIFICO: con la salvedad prevista en el art. 206 del R.O.F.R.J. de las Corporaciones Locales, que la Junta de Gobierno Local, por delegación de Alcaldía, en sesión ordinaria celebrada el día 01 de octubre de 2021, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:**

**2.- Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bateginaren 48-Illarramendi HIE urbanizatzeko proiektuaren testu bateginaren 17. Dokumentuaren aldaketa behin betiko izaeraz onartzeko proposamena. Dokumentu hori urbanizatzeko eta eraikitzeko obrak gauzatzeko aldi baterako programa deitzen da.**.

**2.- Aprobación definitiva de la modificación del Documento 17 (Programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y edificación) del texto refundido del Proyecto de Urbanización del AIU 48-Illarramendi del texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain.**

Ikusirik, Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bateginaren 48-Illarramendi HI urbanizatzeko proiektuaren testu bategina behin betiko izaeraz onartu zela, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratu zela, 28.zenbakian, 220ko otsailaren 13an.

Ikusirik, Jesús Victorio Lacunza de la Fuente jaunak, AIU48 Kontzertazio Batzordeko ordezkari gisa, AIU 48-Illarramendi eremuaren urbanizazio proiektuaren testu bateginaren 17. Dokumentua (urbanizatzeko eta eraikitzeko obrak gauzatzeko aldi baterako programa) aldatzeko eskatu zuela 2021eko ekainaren 8an, eta berak 2021eko ekainean idatzitako aldaketa-dokumentua aurkeztu zuela.

Ikusirik, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko uztailaren 9an onartutako bosgarren erabakiaren bitartez, AIU 48-Illarramendi eremuaren urbanizazio proiektuaren testu bateginaren 17. Dokumentua (urbanizatzeko eta eraikitzeko obrak gauzatzeko aldi baterako programa) aldatzeko proposamena hasierako izaeraz onartu zuela.

Ikusirik, hasierako onarpenaren erabakia eta

Resultando que el texto refundido del Proyecto de Urbanización del AIU 48–Illarramendi del texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain fue aprobado, con carácter definitivo, mediante acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada con fecha 31 de enero de 2020, siendo publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 28 de fecha 13 de febrero de 2020.

Resultando que D. Jesús Victorio Lacunza Lafuente, actuando en representación de la Junta de Concertación AIU48, solicitó con fecha 8 de junio de 2021 la modificación del Documento 17 (Programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y edificación) del texto refundido del Proyecto de Urbanización del AIU 48-Illarramendi, presentando el correspondiente documento de modificación redactado por el mismo con fecha junio de 2021.

Resultando que la Junta de Gobierno Local, mediante acuerdo quinto adoptado en sesión celebrada con fecha 9 de julio de 2021, aprobó, con carácter inicial, la propuesta de modificación del Documento 17 (Programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y edificación) del texto refundido del Proyecto de Urbanización del AIU 48-Illarramendi.

Resultando que el acuerdo de aprobación inicial y el

ESKU38bb7cbb-59af-4340-9f5a-19db04d706ff

dagokion espediente administratiboa jendaurrean jarri zirela 20 egun baliodunen epean, interesdunek egokiak irizten zituten egin zitzaten. Horretarako iragarkiak argitaratu ziren 2021eko uztailaren 19ko 135 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2021eko uztailaren 22ko Diario Vasco eta Berria egunkarietan, udaleko iragarki taulan eta udal webean.

Ikusirik, jendaurreko epean, 2021eko abuztuaren 19an bukatu zena, ez dela alegaziorik aurkeztu, udaleko idazkariak 2021 irailaren 13an egindako ziurtagirian egiaztatzen den bezala.

Ikusirik, erabakia AIU 48-Illarramendi eremuko Kontzertazio Batzordeari eta kaltetutako gainontzeko jabeei jakinarazi zitzaiela.

Ikusirik 2021eko irailaren 13an hirigintza eta zerbitzuetako administraritza orokorreko teknikariak egindako txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2021/09/23 datako irizpena, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Alkatetzak eskuordeturik, aho batez, honakoa erabaki du:

1.- AIU 48-Illarramendi eremuaren urbanizazio proiektuaren testu bateginaren 17. Dokumentua (urbanizatzeko eta eraikitzeko obrak gauzatzeko aldi baterako programa) aldatzeko proposamena behin betiko izaeraz onartzea. Dokumentu hori Jesús Victorio Lacunza Lafuente jaunak idatzi zuen 2021eko ekainean.

Horrenbestez, dokumentu berean jasotzen den bezala, proposaturiko aldaketa onartua izan ondoren, hasiera batean aurreikusitako exekuzio faseak horrela geratzen dira:

- 1 Fasea, Bi azpifasetan banatzen dena:

  - 1A Fasea: c.01 partzela. Jaso dena.
  - 1B Fasea: c.02, b.01 eta b.02 partzelak.

- 2. Fasea: Beste partzela guztiak, h.01 barne.

correspondiente expediente administrativo fueron sometidos a información pública durante el plazo de 20 días, mediante anuncio publicado en el BOG nº 135 de fecha 19 de julio de 2021, en los periódicos Diario Vasco y Berria de fecha 22 de julio de 2021, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal, a efectos de que los/as interesados/as formularan las alegaciones que estimaran convenientes.

Resultando que, durante el periodo de información pública, que finalizó el día 19 de agosto de 2021, no se ha presentado alegación alguna, según consta en el certificado emitido por el Secretario Municipal de fecha 13 de septiembre de 2021.

Resultando que el acuerdo fue notificado a la Junta de Concertación del ámbito AIU 48-Illarramendi y al resto de propietarios/as afectados/as.

Visto el informe emitido con fecha 13 de septiembre de 2021 por la técnica de administración general de urbanismo y servicios.

Visto el dictamen de la Comisión de Urbanismo, Obras, Medio Ambiente y Zona Rural de fecha, 23/09/2021, la Junta de Gobierno Local, por delegación de Alcaldía y por unanimidad, acuerda:

1.- Aprobar, con carácter definitivo, la propuesta de modificación del Documento 17 (Programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y edificación) del texto refundido del Proyecto de Urbanización del AIU 48-Illarramendi, redactada con fecha junio de 2021 por D. Jesús Victorio Lacunza Lafuente.

Por tanto, tal como se indica en el propio documento, una vez aprobada la modificación propuesta, las fases de ejecución inicialmente previstas quedan de la siguiente forma:

- Fase 1, que se divide en dos subfases:

  - Fase 1A: Parcela c.01. Entregada.
  - Fase 1B: Parcelas c.02, b.01 y b.02.

- Fase 2: Resto de parcelas, incluida la h.01.

ESKU38bb7cbb-59af-4340-9f5a-19db04d706ff

2.- Erabaki hau jakinaraztea AIU48 Kontzertazio Batzordeko ordezkari gisa diharduen Jesús Victorio Lacunza Lafuente jaunari eta proiektuak eragindako lursailen gainontzeko jabeei.

2.- Notificar el presente acuerdo a D. Jesús Victorio Lacunza Lafuente, en representación de la Junta de Concertación del AIU 48 Illarramendi, y al resto de propietarios/as afectados/as.

**Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan ziurtagiri hau eman dut Alkatearen aginduz eta oniritziarekin, Andoainen 2021.eko urriak 1.**

**Y para que así conste y tenga los efectos oportunos, expido la presente, de orden y con el visto bueno de la Alcaldesa, en Andoain a 01 de urria de 2021.**

**O.E. / Vº Bº**
**Alkatea**
***La Alcaldesa***

**Idazkaria**
***El Secretario***

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU38bb7cbb-59af-4340-9f5a-19db04d706ff**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910***